

MENDE ERDIKO IRAULTZA

Asiako gerrilla komunista zaharrena, borrokarako prest Filipinetan

Filipinetako mendiar-teko ezkutuko bailara malkartsu batean babestuta, bizitza iraultzaren aldeko borrokari eskaini dioten 30 lagun bizi dira. Herriaren Armada Berriko kideak dira, Asiako gerrilla komunista zaharrena. Duela gutxi bete zen mende erdia gerrilla Filipinetako Gobernuaren aurka altxatu zela.

Lau orduko ibilaldi akigarria –bi baino ez trebatutako gerrillarientzat– beharrezkoa da “Melito Glor” komandoaren kanpamendura heltzeko, erreka, lokatz, palma hosto lehor eta eroritako kokoen artean. Kalabarzonen, Luzon uharteko hegoaldean, «Estatu zapaltzailearen kontra» borrokatzen dute gerrillariak.

Iluntzean iritsi behar da kanpamentura, gaueko iluntasunaren babesean, isilik eta ilaran, betiere matxino fusil-

 **ATZERRIA / GAUR8**

Gobernuarekin bakea negoziatzeko prest dagoela adierazi du Filipinetako Herriaren Armada Berriak, baina baita borrokatzeko ere. Rodrigo Duterte presidenteak gerrilla suntsitzeko agindu duen arren, gerrillariak bost hamarkadaz zutik iraun dutela ospatu eta garaipena lortuko dutela nabarmentzen dute kanpamenduetatik.

dunen zaintzapean. Linternak beti lurrera begira eraman behar dira, oztopoz betetako bi-dea argitzeko ikusiak izan gabe. Kanpamenduaren egungo kokapena behin-behinekoa da. Segurtasun arrazoiak tarteko, gerrillariak ez dira denbora asko geratzen leku berean. Gerrillako bizitzaren arauak argiak dira: beti mugitzen, beti erne.

Goizaldeko lauretan kemen-tsu esnatzen da egunero *ka*

Kathryn, hau da, Kathryn kamarada. «Etsaiak eraso jo dezakeen ordua da eta denok zutik egon behar dugu», azaldu du 26 urteko gerrillari tagalokak. Hiru orduko txandetan egi-ten dute lo. Batzuk zaintza lanetan aritzen diren bitartean, gainontzekoek banbuz eta pal-maz egindako etxoletan atse-den hartzen dute. Hamaka bat-zuk egon badaude, baina ez guztientzat eta txandaka era-

biltzen dituzte. Gehienak lu-rean daude lo.

«Familia handi bat gara, de-nok elkar laguntzen dugu», dio Kathrynek gosaria presta-tzen duen bitartean: arroz zu-ria eta txerri haragia. Menu bera errepikatzen da bazka-rian eta afarian.

Gaurkoan, kanpamenduko errutina apurtu egin da. Entre-namendu eta diziplina milita-rrak jai giro lasaiago bati utzi diote tokia. Gerrillaren 50. ur-teurrena ospatzen ari dira. Le-gez kanpo utzitako Filipineta-ko Alderdi Komunistaren atal armatua, Herriaren Armada Berria, 1969ko martxoaren 29an jaio zen eta hainbat egu-netako ospakizun ekitaldiak antolatu dituzte gerrillariak.

Antzerki lanak, herri musika kontzertuak, hitzaldiak, arma ikuskatzeak, fusilekin eginda-ko malabarismo erakustal-diak, eroritakoei omenaldiak... antolatu ditu gerrillak Filipi-



UWSA gerrillako emakumeen pelotoia. YE AUNG THU | AFP

WA GERRILLAREN INDAR ERAKUSTALDIA

Myanmar-ko gerri-lla-ri-ka-ahaltsue-nak, Wa Estatuko Armada Batuak (UWSA ingelesez), indar erakustaldia eginez ospatu du bere 30. urteurrena. Pentsa, gerrillak parada militar handi bat ere egin du Wa Esta-tuko Pangshang hiriburuan, Myanmar iparraldean, Txina-

ko mugaren ondoan. Belgikako tamainako lurraldea da gerri-llari-ek kontrolpean duten Wa Estatua.

Uneotan 25.000 soldadu di-tu gerrillak eta beste 15.000 ere baditu erreserban. Desfile-an emakume pelotoi batek eta frankotiratzaileen unitateak hartu zuten parte. Soldaduak ez ezik, artilleria astuna, ibil-gailu blindatuak, droneak eta Gobernu birmaniarren kon-

tra borrokatzen duten beste erakunde armatuek ametsetan ere ez dituzten armak bildu zi-tuen gerrillak desfilean.

Duela gutxi arte UWSAk isil-pean izan ditu bere baliabide oparoak, baina, iragan apirila-ren 17an, kazetariak eta diplo-matikoak gonbidatu zituen le-hendabiziko aldiz bere 30. urteurrenaren ospakizunetara, Thein Swe Myanmar-ko Lan, Immigrazio eta Populazio mi-

netako lurralde osoan barna hedatuta dituen ehun fronte baino gehiagotan. Milaka borrokalari iraultzak bizirik dirauela ospatzen dute.

Rodrigo Dutertearen Gobernuaren arabera, 6.000 gerrillari dira. Gerrillaren beraren esanetan, berri, «askoz gehiago». «Egoera berdina da, ez da ezer aldatu. Pribatizazioek eta politika neoliberalak herriak baliabideak galtzea eragin dute, inperialismoari emateko, bereziki AEBei. Dutertearen erregimena herria mundu kapitalistari oparitzen ari da, Txinari eta Japoniari tartean», salatu du Kathrynnek.

2013an sartu zen Herriaren Armada Berrian Kathryn, unibertsitatean graduatu ondoren. Unibertsitatean murgildu zen aktibismo militantean. Matrikulen garestitzearen aurka protesta egin zuen, eta, aitak lana galdu zuenean, borrokaren ezinbestekotasunaz jabetu zen.



Kathrynnek aitak Gobernuak pribatizatutako lantegi batean lan egiten zuen. Lana galdu ez zuen bakarrenetarikoa izan zen, baina jardunaldia luzatu zioten soldata igo gabe. Sindikatu batera jo zuenean, kalera egin zuten. «Hasieran familiak ez zuen nahi ni gerrillan sartzea. Baina aitarekin hitz

Gerrillari gazte bat, Filipinetako mendietako kanpamendu batean.
Noel CELIS | AFP

egin nuen azken aldiaren etxera ez itzultzeko esan zidan, justizia lortzeko itxaropen bakarra nintzela», azaldu du harro. Herriaren Armada Berriak, Kathrynnek esanetan, ez die inolako dirusaririk ematen gerrillariei: «Gure betebeharra bizitza ematea dela uste dugulako gaude gerrillan, herria aldatu

eta ditugun printzipioak defendatzeko». Hala ere, «eskualde gorrietan» lan egiten duten erakundeek diotenez, gerrillak hilean 300 dolar ordaintzen dizkie bertako kideei, batez ere langile eta nekazari pobreei.

Dirua lortzeko ustez zerga iraultzailea ezartzeagatik, «terrorista» izendatu du Herriaren Armada Berria Gobernuak, Europar Batasunak eta AEBek egin bezala. Gerrillak, aitzitik, jarraitzaileen eta kide dituzten nazioarteko erakundeen laguntzen bidez lortzen duela finantzazioa esaten du.

Jarraitzaileek arropa, janaria, sukaldeko oinarritzko tresnak eta etxolak eraikitzeko tresnak ematen dizkiete gerrillariei. Gerrillan bizitza latza bada ere, ez diote modernitateari uko egiten: goi agintariek azken belaunaldiko sakelakoak eta Apple ordenagailuak dituzte, baita satelite bidezko konexioa ere.

nistroa eta Txinako Atzerri Ministerioi goi kargu bat barne. Gerrillak kontrolpean duen lurraldetik milaka wa ere joan ziren.

Antolatutako desfilearekin UWSAk bete nahi zuen helburu argia zen: Myanmarko Gobernuari eta herrialdeko beste milaka etniei wa herriaren eta bere mugimendu armatuaren boterea erakustea.

Wa herria Myanmarko iparralde menditsuan bizi da. Luzaro atzeratutzat jotako herriak beti mantendu du egitez bere independentzia, baita Britainiar Inperioaren dominazio garaian ere. 1947an hu-

rrango urtean indarrean sartzekoa zen Myanmar independenteko konstituzioaz galdetu zietenean, honakoa erantzun zuten wa herriko buruek: «Ez dugu horretan pentsatu ere egin, basatiak garelako».

Birmaniako Alderdi Komunistaren CPB gerrillaren errautsetatik sortu zen UWSA. Hainbat urtez CPB izan zen wa lurraldea kontrolpean izan

zuen, baina, behin gerrilla komunista desagertzeaz zela, 1989ko apirilean, wa etniako gerrillariek armak hartu eta armada berria osatu zuten. Urte horretan bertan su-etena negoziatu zuten Myanmarko Gobernuarekin.

Ordutik, eskualde autonomoa izatea lortu dute, betiere Txinaren babesarekin. Egun Wa Estatutan bizi diren 600.000 pertsonak «euren

UWSA gerrillak estatu independente bat bezala gobernatzen du Wa Estatua. Txinaren begietan bere atzeko patioa da eta, babes horri esker, ez du arazo handirik izan sendotzeko



Bao Youxiang, UWSAko burua, Pangshang hiriko desfilean.

YE AUNG THU | AFP

Iraganean Txina edo Vietnamgo alderdi komunisten babesa izan zuen Herriaren Armada Berriak, baina egun «praktikan kapitalistak» diren herriak gaitzesten ditu gerri-llak. Asiako herriotan emandako marxismo-leninismoaren zein maoismoaren «errebisio-nismoa» salatzen dute. «Ez da komunismoa, ideologia bezala, porrot egun duena. Marxismoaren errebisionismo sistematiko-ak egin du porrot», dio 25 urteko *ka* Anse gerrillarik.

Herriaren Armada Berriko gerrillarien hiru laurdenak 35 urte baino gutxiago dituzte, Kathrynek edo Ansek bezala. Nekazari esparru pobreetan diskurtso iraultzailea sakon errotuta dagoela erakusten du horrek. «Gerrillan bizitza go-gorra da, baina zoriontsua naiz herria zerbitzatzeak zapalkuntzarik gabeko gizarte libre bat eraikitzen laguntzen duelako», adierazi du Ansek.



Filipinetako Herriaren Armada Berriko emakume gerrillariak, entrenamendu batean. Noel CELIS | AFP

Historian graduatu ondoren sartu zen gerrillan. Ansen familia nekazariak ez zuen begi onez ikusi erabakia. «Bizitza hobea izateko irtenbidea borrokatzea dela esan nien, lurra gureganatu eta ondorengo belaunaldientzat etorkizun hobea izateko», dio. Gurasoak eta aiton-amonak errentariak dira, lantzen dituzten eremuak lur jabe handi batenak baitira.

Iraultzan maitasuna aurkitu zuen Ansek. Emaztea haurdun du, eta, horregatik, «beste kanpamendu batera bidali» dute. «Espero dut nire semeak desio dugun gizarte berria ikusi ahal izatea. Baikorra naiz. Horregatik nago hemen».

«Txikitatik nekien zer zen iraultza. Horregatik, 2017an unibertsitatea bukatu nuenean, herriaren zerbitzura jarri

nintzen», adierazi du *ka* Isayk, gerrillako bi buru garrantzitsuren alaba. Kameraren aurrean aurpegia ezkutatu du, Poliziak ez duelako fitxatuta.

Ka Jones 34 urterekin sartu zen gerrillan, AEBetako multinazional baten lantegian eten-gabeko lanaldietan etxetresnak egiteaz nekatuta. «Hemen egoteak ez du parekorik. Ibilaldi luzeak egitea, gosea edo hotza merezi duten sakrifizioak dira herrikideei laguntzeko bada. Hiltzeko prest nago».

“Melito Glor” komandoaren burua Jaime Padilla da, *ka* Diego. 72 urte ditu eta 47 daramatza gerrillan. «Amaiera arte» jarraituko du borrokan. «Aktibista arrunta nintzen, baina Ferdinand Marcosek 1972an gerra legeak ezartzean gerrillarekin bat egin nuen, zer gertatuko zen jakin gabe», gogoratzen du irribarretsua. *Ka* Diego oraindik hunkitu egiten da “Internazionala” entzutean.

etorkizunaren jabe dira», Bao Youxiang UWSAko buruak ospakizunetan adierazi zuenez. Myanmar 2018ko konstituzioak ere onartzen du wa herriaren «administrazio barruti autonomoa». Berez, UWSAko estatu independente bat bezala gobernatu du lurraldea.

Askotan Hezbollah talde xiitarekin alderatu dute wa gerrilla. Libanoko taldearen atzean Iran badago, Txina da wa matxinatuak babesten dituen, armak eta entrenamenduak emanez. Txinaren begietan, gerrillak kontrolatzen duen Myanmar es-

kualdea bere atzeko patioa da. Bertako moneta ofiziala ere yuana da. Babes botere-tsu horri esker, mugimenduak ez du arazorik izan sendotzeko. Myanmar beste lurraldeetan, berriz, Gobernuak hainbat talde matxinaturen kontra borrokatzen du.

«Azken hamarkadetan ez dugu gatazkarik izan eta horri esker garapen handia izan dugu azken 30 urteotan. Baina prest egon behar dugu beti», adierazi zuen desfilean UWSAko ofizial batek.

Autonomiari esker, garapen ekonomiko handia izan du wa herriak. Besteak beste,

munduko eztainu meategi handienetako bat eta kautxusoro erraldoiak ditu kontrolpean. Hori bai, wa herriaren oparotasun iturri nagusieta-koa droga merkataritza izan da, batez ere goeko hamarkadan Myanmar munduko heroina ekoizle nagusia zenean. Ondoren, metanfetamina ekoizteko erabili zituzten droga laborategiak. AEBek narkotrafikatzaileen zerrendan ere sartu zuten UWSA.

Hala ere, azken urteotan, batez ere 2011n Myanmar erregimen militarrek zenbait aldaketa onartu zituenetik, UWSA bere irudia hobetzen



UWSAko buruzagi Bao Youxiang, Txinako Atzerri Ministerioiako ordezkariarekin. YE AUNG THU | AFP

«Gerrillan bizitza gogorra da, baina zoriontsua naiz zapalkuntzarik gabeko gizarte libre bat eraikitzen laguntzen ari naizelako»

Rodrigo Duterteen Gobernuaren arabera, 6.000 gerrillari ditu Herriaren Armada Berriak. Gerrillaren esanetan, berriz, «askoz gehiago»

AEBetako okupaziotik edo Markosen diktaduratik Filipinetan ez dela deus aldatu dio. «Jende gehienak zapalduta jarraitzen du, pobre izaten».

Borrokan familia ere osatu zuen *ka* Diegok. 1986an beste matxino batekin ezkondu zen –2015ean hil zen minbizi baten ondorioz– eta seme bat izan zuen. Semeak mugimendutik urruntzea eta «bizitza normala» egitea erabaki du.

Borrokan emandako ia bost hamarkadetan, Filipinetan izandako «gobernu erreakzionarioekin» izandako bake prozesuen lekukoa izan da *ka* Die-

go. Duterteen abiatutako azken negoziazioak behin betiko apurtu berri dira eta Gobernuak Herriaren Armada Berriarekin «aurten bertan amaitzea» agindu du. «Indar iraultzaileak bakea negoziatzeko prest gaude, baina baita Gobernu faxistaren aurka borrokatzeko ere», ohartarazi du *ka* Diegok, herriaren gehiengoaren babesarekin, gerrillak bizi-raungo duela eta sistema garaituko duela konbentziturik.

Urruneko beste kanpamentu batean, Qezon probintzian, *ka* Cleo, 36 urtekoa, eta *ka* Wenli, 40 urtekoa, elkarrekin



Gerrillariak formazioan, Sierra Madre mendikatean. Noel CELIS | AFP

bizi dira. Zoriontsu dira mendian eta 9 urteko semea dute. «Gerrillan sartu nintzen gure gizartearen bidegabeko baldintzak pairatzen nituelako. Koko ekoizlea nintzen, koko olioia saltzen nuen, baina dirua

inoiz ez zen bizitzeko nahiko», azaldu du 2001etik gerrillaria den Wenlik. 2006tik gerrillaria den Cleo emazteak herriaren aldetik jasotzen duten sostengua nabarmendu du. «Badakite ez gara terroristak, komu-

nitateen alde egiten dugula guztia, kartzela edo heriotza arriskatuz. Herriaren alde sakrifikatzen jarraituko dugu, orain 'terrorismoa' zigortzen duten zigor gogorragoei aurre egin beharko badiegu ere».

saiatu da. Droga ekoizpenaren aurka egin eta landaketak kautxurantz bideratzen ari da, betiere txinatar inbertso-reen laguntzaz. «Ez dugu berriro onartuko gure lurretan opio landaketak izatea», nabarmendu zuen Bao Youxiangek Pangshangeko desfilean. Armadaren, alderdiaren eta Gobernuaren burua da Bao, «eta kargu horietan guztietan bizitza osorako berretsi berri dute», Anthony Davis analistak azpimarratu bezala.

Drogaren aurkako ustezko borroka gorabehera, Wa Estatuko hiriburuan, kasino eta burdel ugari eta babestutako

espezien organoak saltzen dituzten merkatu ugari daude. «Bost hilabete eman ditugu tentsio betean. Wa agintariak drogazaleak atxilotzen aritu da eta asko kartzelan daude. Gero konturatu ginen kanpotar asko etorriko zirela urteurrenera eta kaleak 'garbitzen' ari zirela», adierazi du Myanmar marko etorkin batek.

Beste itzal bat ere badago wa gerrillaren gainean: ume soldaduak errekrutatzea. Urteurrena ospatzeko desfilean parte hartu zutenetako asko ere adin txikikoak ziren. «18 urte baino gehiagoko soldaduak baino ez ditugu onar-

Luzaroan droga merkataritzan aritu izanaren itzala izan du ginean UWSAk, baita ume soldaduak errekrutatzearena. Azkenaldian, baina, bere irudia garbitzen saiatzen ari da



Wa gerrillak estatu baten pareko ekitaldia antolatuta zuten. YE AUNG THU | AFP

tzen, baina txikiak direnetik entrenatzen ditugu, eta, gero, adinez nagusi direnean, armadan sartzen dira», Nyi Paluak UWSAko ofizialaren arabera. «13 urte nituela egin nintzen soldadu. Nire anaia txikiena ere soldadua da», onartu du, berriz, egun 32 urte dituen UWSAko kide batek.

Gatazka etniko ugari bizi izan dituen Myanmarren, wa herriko ordezkariak ere parte hartu zuten Gobernuaren eta hainbat talde matxinoren arteko bake elkarrizketetan. Azkenean, baina, prozesua bertan behera geratu zen, su etenik nazionalik lortu gabe.